

2005EKO UZTAILAREN 21EKO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko uztailaren hogeita batean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti eta Milagros Alvarez Novoa.

Igor Sarriegi Zumarraga, Xanet Barreras Jauregi, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005ko ekainaren 30an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- FUTBOL ZELAIKO LANEN ZERTIFIKAZIOAK.-

Arizti Haundi Futbol Zelaiko Birmoldaketa eta Aldagelak proiektuaren obra zuzendaritzak futbol zelaiko birmoldaketa lanen zortzigarren eta aldagela lanen zazpigarren zertifikazioak luzatu ditu. Futbol Zelaiaren Birmoldaketa lanen zortzigarren zertifikazioa 57.761,28 eurotako da eta Aldagela proiektuaren zazpigarren zertifikazioa 236.969,10 eurotako da.

Obra zertifikazio hauek udal teknikarien oniritzia jaso dute.

Hau kontutan izanda eta zertifikazio hauek aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, berauek onartzea erabakitzen du.

IV.- HIRIGOIEN KALEKO BIRRURBANIZAZIO LANEN ESLEIPENA HUTSIK UTZI ETA DEIALDI BERRIA EGINEZ EMANDAKO ALKATETZAREN EBAZPENA BERRESTEA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2005eko apirilaren 21ean egindako batzaraldian, Hirigoien Kaleko birrurbanizazio lanak burutzeko kontratazio espedienteak onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketa deialdia egin eta eskeintzak aurkezteko denboraldian ez zen batere proposamenik aurkeztu.

Hau honela, Alkateak, obrak burutzeko epeak asko atzeratu ez zitezen, 2005eko uztailaren 6an emandako alkatetzaren ebazpen bidez, lehiaketa hutsik aitortu eta lehengo baldintzak mantenduz negoziatutako prozedura bidez izapidatuko den kontratazio prozedura bidezko deialdi berri bat egitea ebatzi zuen, gonbidapenak, proiektuaren egilea eta zinegotziren baten iradokizunari jarraiki, honako enpresa hauei luzatuz: Construcciones Biskani, Construcciones Donosti, S.A., Decorsa-Obras, S.L., GAIMAZ, S.L. eta URBEYCOLAN, S.L.

Guzti hau honela eta kontratazio espediente honen izapidatzea, aurrekontu zenbaitzekoaren zioz, Osoko Bilkurarena dela kontutan izanda, Osoko Bilkurari alkatetzaren ebazpen bidez onartutakoa berrestea eskatzen zaio.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, alkatetzaren ebazpen bidez onartutakoa berrestea erabakitzen du.

V.- HIRIGOIEN KALEKO BIRRURBANIZAZIO LANEN ESLEIPENA.-

Osoko Bilkura honek berak aurreko puntuan berretsi duen 2005eko uztailaren 6ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, "Hirigoien kaleko 14 eta 30 zenbakien arteko espaloia berritzeko proiektua"ren lanak presakazko negoziatutako prozedura bidez esleitzeko deialdia egitea ebatzi zen.

Horretarako ezarritako epean, proposamen bakar bat egon zen, GAIMAZ, S.A.k aurkeztutakoa.

Kontratazio Mahaiak kontratuaren esleipena GAIMAZ, S.A.ri egitea proposatzen duela kontutan izanik, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

Lehenaketa.- Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea.

Bigarrenaketa.- "Hirigoien kaleko 14 eta 30 zenbakien arteko espaloia berritzeko proiektua"ren lanak GAIMAZ, S.A.ri esleitzea, aurkeztutako proposamen bakarren egilea izaki, LAUREHUN ETA HOGEITA BAT MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEI (421.880,00 €) eurotan, B.E.Z. barne.

Hirugarrenaketa.- Esleipendunari akordio honen jakinarazpena egiten zaionetik hurrengo 15 lanegunetako epean, behin betiko bermea jar dezan errekeritzea.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak informatzen du Jose Lasako parkea egokitzeko obra zibila lehiaketa bidez esleitzeko dedialdia egingo del Alkatetzaren Ebazpen bidez.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hemezortzi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.